

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2008KO ABENDUA

Euskal Autonomia Erkidegoko industri jarduera %21,5 gutxitu zen 2008ko abenduan


Industri Produkzioaren Indizeak urte osoan %3,4ko beherapena izan zuen

EUSTATen datuen arabera, eta lan-egutegi homogeneousari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa %21,5 gutxitu zen 2008ko abenduan, 2007ko abenduaren aldean. 2008. urte osoko beherapen-tasa metatua, aurreko urtearen aldean, -%3,4koa izan zen.

2008ko abenduan, eta azaroarekin erkatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa %6,0 gutxitu zen estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabeteka

% hazkundea



Iturria: Eustat

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusien sailkapena kontuan hartuta, 2008ko abenduko indizearen bilakaerak (2007ko abenduaren aldean) hurrengo aldakuntzak izan zituen: energiak %5,4ko aldakuntza positiboa izan zuen urte batetik bestera; aitzitik, ekipamenduko ondasunek %19,3 egin zuten behera, tarteko ondasunak %31,0 gutxitu ziren eta kontsumo-ondasunak %18,8 murriztu ziren. Azken kasu honetan, kontsumo-ondasun iraunkorren (-%25,5) eta kontsumo-ondasun ez iraunkorren (-%15,7) beherapenak eragin zuen murrizketa.

2008ko abenduko hil arteko aldakuntza negatiboa izan zen sektore guztietan; energia sektorean izan ezik, honek %1,7 egin baitzuen gora. Tarteko ondasunek %7,7 egin zuten behera; ekipamenduko ondasunak %7,1 gutxitu ziren eta kontsumo-ondasunak %5,3 murriztu ziren, kontsumo-ondasun ez iraunkorren (-%6,8) eta kontsumo-ondasun iraunkorren (-%0,7) beherapenaren ondorioz.

Lurralde historikoka, Industri Produkzioaren Indizeak urte batetik besterako abenduan izan zuen bilakaera negatiboa izan zen hiru lurraldeetan: Araban %25,8 egin zuen behera, Bizkaian %19,9 eta Gipuzkoan %20,9. Hil arteko hazkunde-tasak ere negatiboak izan ziren hiru lurraldeetan: Araban %10,3 jaitsi zen, Bizkaian %5,1 eta Gipuzkoan %4,8.

2008ko industri jardueraren balantzea

Euskal Autonomia Erkidegoko 2008. urteko balantzeak %3,4ko beherapen metatua erakusten du Industri Produkzioaren Indizean.

Industriako sektore garrantzitsuenek aldakuntza negatiboak izan zituzten urteko metatuan; energia izan zen salbuespen bakarra, %5,0 hazi zelako. Ekipamenduko ondasunek %2,2 egin zuten behera, tarteko ondasunek %5,0 eta kontsumo-ondasunek, denek, %6,9 egin zuten behera. Azken hauen artean, kontsumo-ondasun iraunkorrak %15,7 gutxitu ziren eta kontsumo-ondasun ez iraunkorrak %3,0 gutxitu ziren. Hori guztia, betiere, 2007. urtearekin alderatuta.

2008. urteko aldakuntza metatuak negatiboak izan ziren hiru lurralde historikoetan eta aipatutako hiru kasuetan: Arabak %4,1eko beherapena izan zuen, Bizkaia %2,4koa eta Gipuzkoak %4,2koa.

Taula: 2008KO ABENDUA. Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	Abe08/Abe07	At/At-1 (1)	Abe08/Aza08	Aza08/Urr08
Indize orokorra: Euskal AE	-21,5	-3,4	-6,0	-3,7
Araba	-25,8	-4,1	-10,3	-6,3
Bizkaia	-19,9	-2,4	-5,1	-2,8
Gipuzkoa	-20,9	-4,2	-4,8	-3,2
Indizeak helburu ekonomikoka- Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	-18,8	-6,9	-5,3	-1,7
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-25,5	-15,7	-0,7	-1,4
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-15,7	-3,0	-6,8	-1,8
Ekipo-ondasunak	-19,3	-2,2	-7,1	-5,0
Bitarteko ondasunak	-31,0	-5,0	-7,7	-4,3
Energia	5,4	5,0	1,7	0,1

(1) t urteko urtariletik azken hileraren arte metatutako aldiaren urtetik urterako aldaketa-tasa da, t-1 urteko aldi berberaren aldean.

Iturria: Eustat

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe +34-945-01 75 01 Helb.elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp